

ELKARRIZKETA SEGITU

Asteak eta hilabeteak dira sexu bereko presuneri ezkontzeko eskubidea ezagutzea aktualitatearen gai nagusietarik dela. Eztabaida sutsa izan eta gero, legea onartua izan da. Baina giza komunitatea zatiturik uzten du eztabaidak. Adiezintasuna nabaria da erreformaren aldekoen eta kontrakoaren artean, jarrerak erradikalizatu egin dira. Honek guziak luzapenak eta ondorioak baditu kristau komunitatearen baitan, nolaz ez.

Gauden kinkan, hausnarketa eta dizernimendu elementu beharretan gaude, jarrera gogor eta hertsia gaituzteko, gaiari doakion goratasuna hartuz.

Frantziako Apezpiku Konferentziaren « Famille et Société » Kontseiluak hurbiletik eta sakonetik parte hartu du eztabaida huntan, eta berak atera erakapenak aipatzera noa gaurkoan.

Haste hastetik Kontseiluak eztabaida maila juridikoan eta antropologikoan plantatu nahi izan du, baina bere ekarpenak ez dira entzunak edo ulertuak izan, eta jende ainitz ezontzako sentipen batekin gelditzen da.

Izan ere, asko tirabiratuak senditzen ziren bi nahikariren artean: alde batetik sexuen alteritatean oinarrituriko ezkontzari bere zentzu osoa eman, eta bestetik presuna homosexualak ez baztertu. Baina lege proiektuak bien artean hautua egitera behartzen zituen. Bi ikusponduak adosteko xedea zuten kontra-proposamenek ez dute oihartzun politikorik izan. Honek argitan emaiten du aburu etikoaren konplexutasuna gizarte askotariko eta sekularizatuan.

Horiek hola, « Famille et Société » Kontseiluak hainbat erakapen positibo ateratzen ditu eztabaida denboraldi hortarik. Hiru nagusiki:

1. Zorroztasun demokratikoaren bizipena. Iritzi desadostasunak zilegiak dira eta bakotzak entzuna eta errespetatua izateko eskubidea du. Laikotasuna ere errespetatu beharra dago, jakinik Estatuaren laikotasunak ez dakarrela ondoriotzat gizartearen laikotasuna. Katolikoek eztabaida publikoa hazten dute gizakiaz duten xede edo ikuspegi berariazkoetik abiatuz, argi izanik ez datozela hunekin guziak bat. Herritartasunez jokatu behar dute, demokrazian guttiengoaren duen jarrera asumituz. Aldi berean, gogoan izan behar dute beren sineskera hitzez bezenbat lekukotasunez eta aldeko lagunaren zerbitzu bidez adieraz dezaketela. Ondorioz, premiazkoa da doktrina sozialaren heziketa gazteen artean bultzatzea.

2. Haurraren aldeko goi-axola. Kontzeptu hau Nazio Batuen Batzordeak hitzarmenez finkatu zuen 1989ko azaroaren 20ean. Baina, eztabaida garaian, argibide guttiegi eta gaizki-ulertze asko egon da hunen inguruan. Askok, « ezkontza eskubidea guzientzat » aldarrikapenaren alde izanik, adopzioaren kontra ziren; ezkontza eta adopzio eskubideen arteko lotura hertsia ez zeukaten argi. Azkenean, 2013ko maiatzaren 17an Kontseilu Konstituzionalak hartu erabakiz, « haurraren aldeko goi-axola » betekizun konstituzionala bihurtu da. Aldi berean, Kontseiluak berak argi utzi du ez duela legeak « haur eskubidea » ezagutzeko helbururik. Ondorioz, pentsa daiteke gehiengo bat agertuko dela « ugaltze medikalki lagundua »ren eta « auzo-ernaldura »ren legalizazioaren hedapenaren kontra.

3. Presuna homosexualen harrera Elizaren baitan. Argi gelditu da homofobiak baduela toki bai gizartean bai elkargo katolikoetan. Ordu arte doi bat estalirik bazegoen ere, indarkeriz kanporatu da, hitzez eta egitez. Hau onartezina da, eta gain-gainetik kondenatu beharra dago. Kristaudentzat, presuna oro Jainkoaren seme-alaba da, eta bakotxa lagundu beharra dago bere ibilbidean, bihotzak jujatu gabe. Arlo huntan, « Famille et Société » Kontseiluaren arabera, askoz gehiago egin daiteke presuna homosexualak eta hauen familiak onartzeko eta laguntzeko.

Kontseiluak hunek aztergai berriak ere ikusten ditu: interdependentzia, elkartasuna, zaugarrienen aldeko axola, ezkontza zibila eta erlijiosoaren arteko urruntasunaren areagotzea... Azkenean, argi uzten du kristau bakotxa bihozberitze pertsonal batera deitua dela fedea eta ekintzak koherentzian bizitzeko, oinarritzat jarriz giza presunaren duintasuna, eta beti helburutzat

izanik justizi, bake eta elkartasun gehiagoren bilaketa bizikidetzan sozial eta politikoan. Elkarrizketak baitezpada segitu behar du.

Peio Ospital
2013-06-24